



an antolaturiko ekitaldiak. Hala, ohiko hitzaldi eta mahai-inguruez gain, gaitzaren

Bartzelona... urdin hori eta gorria

KONFERENTZIAREN ATARIKOAK. Hasiara ofiziala gaur izango bada ere, atzo jada hiesari buruzko biltzarra martxan zen Kataluniako hiriburuan

Arantxa Iraola | **BARTZELONA**

Handia da oso Bartzelonako Fira, propio biltzar erraldoiak egiteko prestatua. Nolanahi ere, atzo jada, konferentziaren hasiera ofizialaren atarian, txiki geratu ziren zenbait leku. Hiru kolore ofizial ditu aurtengo konferentziak, urdina, horia eta gorria, eta kolore horiekin jantzi ziren bazter gehienak.

Bide batez, han-hemenka, botika konpainia zenbaitzuen babesean-eta estreinako hitzaldi eta ekitaldiak egin ziren. Gobernu Kanpoko Erakundeek ere beren presentzia agerian utzi zuten. Mugarik Gabeko Medikuek, esaterako, herrialde behartsuetako jendeari hiesaren kontrako botikak nola eskuragarri egin dute kezka, eta gai horren inguruan antolatutako ekimenak aurkezten jardun zuten atzo. «Hegoafrika, Malawi, Kenya, Kamerun, Kanputxea, Thailandia eta Guatemala dira orain gure kezka ardatza».

Guztiaren berri emateko kazetariak ere heldu ziren atzo Bartzelonara. Andana. «Denara 2.000 kazetari inguru izango dira konferentziaren berri ematen», azaldu zioten antolatzaileek EGUNKARIARI.

Ameriketako Estatu Batuak irabazle

Duda izpirik gabe, Ameriketako Estatu Batuak dira konferentzian ordezkari gehien duen herrialdea, nabarmen, gainera. AEBetako 3.961 lagunek eman dute izena biltzarrean. Atzetik, oso atzetik, Erresuma Batua dator 866rekin, eta gainerako guztiek gutxiago dituzte.

Nolanahi ere, antolatzaileek Latinoamerikako zenbait herrialderen partaidetza nabarmendu dute, itxaropentsu. Aditza eman dutenez, esaterako, Brasilgo 274 ordezkari izango dira konferentzian, eta Kolonbiako 60. Lehen begiratuan, behintzat, arraza, hizkuntza eta kultura nahasketa handia dago konferentzia kolorez betean.

IKERKUNTZA. Adituak baikor agertu dira ikerlanaren emaitzekin

Sojak bularreko minbizia izateko arriskua murrizten duela iradoki dute

Elikadura egoki baten eta gaitzaren arteko harremana uste baina estuagoa dela nabarmendu dute zientzialariek

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Sojan oinarritutako elikagaiak bularreko minbizia garatzeko arriskua murrizten dutela ondorioztatu du ikerketa batek. Ikerlanean Erresuma Batuko Minbiziaren Ikerketarako Elkarteko, Singapurreko Unibertsitate Nazionalako eta Ameriketako Estatu Batuetako Minbiziaren Institutuko Nazionalen zientzialariek esku hartu dute. Zientzialarien arabera, sojak lekadunen familiako urteko belar landarea bularreko minbiziarekin lotutako ehuna garatzeko arriskuak murrizten ditu. Ikerlana *Cancer Epidemiology Biomarkers and Prevention* aldizkari ezagunaren azken zenbakiak jasotzen du.

Bularreko minbizia emakumeen artean dagoen minbiziarik ohikoena da, eta kasu gehienak menopausia duten andrazkoetan diagnostikatzen dira. Hala ere, Asiako ekialdeko zenbait herrialde-

tan gaitzaren eragina askoz ere txikiagoa da. Adituen arabera, sojan oinarritutako elikadura da horren arrazoia.

Sojak estrogenoak ordezkatzeko dituzte

Zientzialariek Singapurreko 406 emakume aztertu zituzte. Ikertzaileen arabera, euren elikadura sojan oinarritzen zen andrazkoen artean bularreko minbizia garatzeko arriskua %40koa zen. Soja jaten ez zutenen artean, berriz, %70ek zuten gaitza garatzeko arriskua.

Sojak estrogenoen emeen sexu hormonaren antzeko ondorioak dituen gai bat du: isoflabona. Menopausiarekin emakumeek estrogenoak galtzen dituzte, eta isoflabonak galdutako estrogenoak ordezkatzeko dituzte emakumeen organismoan. Zientzialarien arabera, prozesu hori oso garrantzitsua da. Izan ere, menopausia garaian bularreko minbizia garatzeko aukerak



JUAN KARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Emakume bat mamografia bat egiten.

nabarmen handitzen dira, estrogenoen galeraren ondorioz.

Erresuma Batuko Minbiziaren Ikerketarako Elkarteko kide Paul Nursek esan duenez, «ikerketa oso garrantzitsua da, elikadura egoki baten beharraren eta minbiziaren arteko harremana agerian jarri duelako. Jakina zen Japonia bezelaki herrietako andre-ek bularreko minbizia izateko arrisku gutxiago zutela. Hala ere, ez genekien zehatz-zehatz zergatia.».

LABURAREN

OSASUNA

Organo emaile berriak lortzeko kanpaina hasi du Erresuma Batuko Gobernuak

Erresuma Batuko Gobernuak organo emaile berriak lortzeko kanpaina bat hasi du. Agintariak nabarmendu dutenez, emaile eskasiaren erruz milaka lagun osasuna arrisku larrian dago. Iragan urtean 3.000 organo transplante egin ziren Erresuma Batuan. Hala ere, kopuru hori ez da nahikoa. Izan ere, gaur egun 6.000 lagun inguruk ezinbestean behar dute organo berri bat. Osasun Ministro David Lammyk zabalduko datuen arabera, herritarren %16k izena eman dute organo emaileen zerrendan. Dena den, oraindik emaile gehiago behar direla azpimarratu du Lammyk.

OSASUNA

Hamabost haur hil dira Erdialdeko Amerikan denge hemorragikoaren ondorioz

Hamabost haur hil dira El Salvador, Honduras eta Nikaraguan azken egunetan, denge hemorragikoaren erruz. Dengea gizonaren zorne eritasun larri ez kutsakorra da, eta intsektuek kutsatutako birus batek eragiten du. Jadanik aurtun 400 haur inguru hil dira Erdialdeko Amerikan gaitzaren ondorioz. El Salvador, Honduras eta Nikaraguako gobernuek gaitzaren aurkako sendagaiak erosteko laguntzak eskatu dituzte.



Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria